## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

**Departamentua:** 09 - LURRALDE OREKA BERDEKO DEPARTAMENTUA
**Atala:** 0910 - Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia
**Programa:** 110 - Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua
**Funtzionala:** 412 - Nekazaritza eta abeltzaintzako egituren eta ekoizpen-sistemen hobekuntza

**Programa mota:**

Finalista

**Misioa:**

Ingurugiroaren alorrean eta landa ingurunearen garapenerako ebaluazio analitiko zerbitzu hobea eskaini, lehen sektorearekin harreman zuzena duten bezeroen premia eta itxaropenekin bat etorriko dena eta Departamentutik sortzen diren berrikuntzako proiektuak bultzatu eta aurrera eraman, landa ingurunean egiten den jarduera ekonomikoa balioan jarriz.
Ikuskapen arloari dagokionez, Nekazaritzako Politika Bateratuko (NPB) laguntzen kontrola, nekazaritzako ustiategiek kudeaketarako legezko baldintzak eta nekazaritza- eta ingurumen-baldintza onak betetzen dituztela egiaztatuz, indarrean dagoen araudiaren arabera.
Nekazaritzako higieneari eta landare-osasunari, animalien ongizateari eta osasunari, animalien elikadurari eta azpiproduktuei eta elikagaien kalitateari dagokienez, EKKPNri (Elikagaien Katea Kontrolatzeko Plan Nazionala) buruz indarrean dagoen araudia betetzen dela kontrolatzea eta bermatzea.

**Egoeraren diagnostikoa:**

Gipuzkoa eta gipuzkoarren beharretara egokituz, Landa ingurunearen garapenerako eta ingurugiroaren alorrean, berrikuntza, garapena, kalitatea eta ebaluaketa analitikoko zerbitzuak eskaintzen dira.
Analisiak egiten dira, araudia betetzen dela egiaztatzeko, produktuen hobekuntzarako, arazo edo gaitzen zergatia eta konponbideak eman ahal izateko, Gipuzkoako aziendaren osasuna eta mendi eta baso-osasuna zaindu eta bermatzeko, etab.
UNE EN ISO 17025 arauaren egiaztapena daukagu, non gure emaitzen fidagarritasuna bermatzen den. Ingurugiroarekiko eta langileen osasun eta laneko segurtasunarekin daukagun konpromisoaren ondorioz ere, Aldundian UNE-EN ISO 14.001 eta ISO 45001 ziurtagiriak ditugun bakarrak gara. Bai egiaztapena, baita ziurtagiriak urtero berritzen dira eta Q-epeak ziurtatutako Zerbitzu Karta bat ere badaukagu.
Gure base datuaren arabera, iaz 71.736 lagin eta 278.630 determinazio aztertu ziren, aurreko urtean baino zertxobait gutxiago, baina urteroko joera mantenduz.
Horretaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak NBEko Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) bat egin nahi du; aurrekontu programa honen kasuan, bereziki 6,7,8,eta 12 helburuak hartzen dira aintzat: Ur garbia eta saneamendua, energia irisgarria eta ez kutsatzailea, lan duina eta hazkunde ekonomikoa eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.
Elikagaien katearen kontrola bermatzeko, ikuskapen desberdinak egiten dira: nekazaritzako higienea eta landare-osasunean, animalien higienea eta ongizatean, animalien elikadura eta azpiproduktuetan eta elikagaien kalitate arloan.
Era berean, NPBren (Nekazaritzako Politika Bateratua) laguntzen kontrolak era egiten dira, nekazaritzako ustiategiek kudeaketarako legezko baldintzak eta nekazaritza- eta ingurumen-baldintza onak betetzen dituztela egiaztatuz, indarrean dagoen araudiaren arabera.
Esparru horretan, GJHekiko lerrokatzea bigarren helburuari dagokio: goseari amaiera ematea, elikagaien segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza iraunkorra sustatzea eta hazkunde ekonomikoa eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Diagnostikoan aipatu den moduan, gure bezeroen beharrei egokitzen gara. Gure bezeroak Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundiko beste departamentu batzuk, beste erakunde batzuk (Eusko Jaurlaritza, udalak, kalitate kontrola egiten duten erakundeak, HAZI) eta lehen sektorearekin erlazio zuzena eta gure zerbitzuen beharrak izan ditzaketen partikularrak direlarik.
Bezeroen beharrak oso desberdinak izan daitezke: sektore bakoitzari dagokion araudia betetzea, produktuaren hobekuntzarako analisiak egitea, arazoak eta gaixotasunak ekiditea, abereen, landare eta mendi zein baso osasuna bermatzea, etab..
Elikagai-katearen kontrol osoa bermatu behar da, baita eskaintzen diren laguntzen baldintzak eta betebeharrak ere.

**Nori zuzendua:**

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko departamentua, Foru Aldundiko beste departamentu batzuk, beste erakunde batzuk, eta gure zerbitzuak eskatzen dizkiguten partikular zehatz batzuk.

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Langileria. Errekurtso materialak. Errekurtso ekonomikoak. Laguntza teknikoa.

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

Landa ingurumenaren garapena eta ingurugiroaren hobekuntza bultzatzeko zehaztapen analitikoak eta aholkularitza burutzea.
Elikagai katearen kontrolerako eta eskaintzen diren diru laguntzen balditzak betetzen direla bermatzeko ikuskapenak egitea.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Zehaztapen analitikoen emaitzak eta aholkularitza zerbitzuak.
Elikagaien segurtasunaren eta laguntzetarako baldintzen esparruan araudia betetzen dela berrestea

**Programaren arau esparrua:**

Analisi batzuk araudiak betetzeko egiten dira, araudi hauek, elikagaiei dagozkienak izaten daitezke, esate baterako sagardo desberdinen kalitatea bermatzeko araudia. Bestalde substratuetan konposizioaren inguruko araudiak ere badaude, uren kalitatearen ingurukoak, abere osasunaren arloan hainbat gaixotasun errotik kentzeko programak arautuak daude ,etab.
Zuzenean guk eskainitako zerbitzuari lotuta, zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen dekretua dago.
Guztiak ondorengo estekan ikus daitezke.
https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/fraisoro/araudia

Hauetaz gain, UN-ISO 17025, UN-ISO 14001, ISO 45001 kudeaketa sistemetan egiaztatuak gaudenez, arau horien eskakizunak betetzera behartuta gaude, baita zerbitzu-kartari dagokion Q-epearen eskakizunetara ere.
EKKPN (elikagaien katea kontrolatzeko plan nazionala) eta hainbat laguntzen oinarrriak bakoitzari dagokion legediarekin.

**DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA**

**Urteko helburua:** Ingurumenaren arloan eta landa ingurunearen garapenerako, ebaluazio analitiko eta aholkularitza zerbitzuen eskaintza mantentzea eta hobetzea, kudeaketa aurreratuko eta erabateko kalitateko lana sustatuz, ezagueraren eta berrikuntzaren kudeaketa hobetuz eta bezeroen, langileen eta, oro har, gizartearen itxaropenak betez

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Epean emandako emaitzak | Ehunekoa | >= | 91,00 | 90,00 | 90,00 | 90,00 |
| Laborategien arteko saiakeretan emaitza onak | Ehunekoa | >= | 96,80 | 95,00 | 95,00 | 95,00 |
| Zerbitzu-kartako konpromisoak betetzea | Ehunekoa | >= | 99,00 | 90,00 | 90,00 | 90,00 |

**Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak**

**1. Ekintza lerroa:**

Analisiak egitea ingurumen eta landa ingurunearen garapenerako (nekazaritzako elikagaiak)

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **1.481.938,60** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Ingurumen analisiak egitea | 624.318,20 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.2 Ekintza**<br>Nekazritzako elikagaien analisiak egitea | 857.620,40 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

**2. Ekintza lerroa:**

Orain arte ezarritako kalitate kudeaketa mantentzea (egiaztatzeak eta zirutagiriak)

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **281.842,95** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |
| **2.1 Ekintza**<br>Barne naiz kanpo auditoretzak egitea, ISO 17025, ISO 45001, ISO 14001 eta 5S arauen arabera | 281.842,95 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

**3. Ekintza lerroa:**

Prestakuntza-zentruekin elkarlanean aritzea ikasleak trebatzeko

2 GOSERIK EZ % 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **248.550,90** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |
| **3.1 Ekintza**<br>Praktiketako ikasleak kualifikatzea bai laborategiko analisietan bai hobekuntza sistemetan | 248.550,90 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

**Urteko helburua:** Nekazaritzako ustiategiek NPBren laguntzak (Nekazaritza Politika Bateratua) eskuratzeko indarrean dauden legezko baldintzak betetzen dituztela bermatzea.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Baldintzazkotasun baldintzei eta 10, 11 eta 4.1 eta 6.1 neurriei dagozkien egin beharreko kontrolen betetze | Ehunekoa | >= | 0,00 | 90,00 | 90,00 | 90,00 |

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| maila | | | | | | |

## Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

**1. Ekintza lerroa:**
Baldintzazkotasun eta 10,11, 4.1 eta 6.1 neurriei dagozkien kontrolak egitea, Nekazaritzako ustiategiek NPBren laguntzak eskuratzeko indarrean dauden legezko baldintzak betetzen dituztela bermatzeko

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **279.166,26** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Baldintzazkotasun eta 10,11, 4.1 eta 6.1 neurriei dagozkien kontrolak egitea | 279.166,26 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

**Urteko helburua:** Nekazaritzako eta abeltzaintzako lehen mailako ekoizpenetan segurtasun-maila handia bermatzea, eta ondorioz, osasun publikoaren babes-maila handia.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gipuzkoako abeltzaintzako ustiategietako higiene, ongizate eta osasun-programen kontrol ofizialeko eta animalien elikadurari eta azpiproduktuei dagozkien programtan egin beharreko ikuskapenen betetze-maila | Ehunekoa | >= | 0,00 | 90,00 | 90,00 | 90,00 |
| Nekazaritzako higienearen eta landare-osasunaren kontrol ofizialeko programetan egin beharreko ikuskapenen betetze maila | Ehunekoa | >= | 0,00 | 90,00 | 90,00 | 90,00 |

## Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

**1. Ekintza lerroa:**
Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako elikagaien katearen kontrol ofizialeko planari dagozkion kontrolak egitea.

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **607.884,31** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Gipuzkoako animalien higiene, ongizate, osasun eta, animalien elikadura eta | 328.544,86 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| azpiproduktuen programetako kontrol ofizialak egitea. | | | | | | |
| **1.2 Ekintza**<br>Nekazaritzako higiene eta landare-osasun programetako kontrol ofizialak egitea | 269.779,79 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.3 Ekintza**<br>Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkuntza-klausula berrituak txertatu | 9.559,66 | | | 2025/10/01 | 2025/12/31 | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Txikia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Indarkeriarik gabe bizitzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Ez du garrantziarik, gure zerbitzua analisiak eta ikuskapenak egitea baita.

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Orokorrean gure Zerbitzuko hizkuntza euskara izan ohi da, bai lankideen artean baita beste Zerbitzu eta Departamentuko pertsonekin eta bezeroekin ere. Bezeroekin eta zerbitzu hartzaileekin lehenetsiko da harremana euskaraz izatea

| Kategoria | Nola |
|---|---|
| **6.- Hizkuntza-klausulak** | **Argitaratzen diren kontratu zerbitzuetan, Aldundiarekiko eta herritarrekiko komunikazioak euskaraz izan daitezen lehenetsiz.** |

## GJH

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Programa honetan (laborategi arloari dagokionez), bereziki 6,7,8,eta 12 helburuak hartzen dira aintzat: Ur garbia eta saneamendua, energia irisgarria eta ez kutsatzailea, lan duina eta hazkunde ekonomikoa eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuak. Helburu hauek, bat datoz UNE-EN-ISO 14001 (Ingurumena Kudeatzeko Sistema) eta ISO 45001 (Laneko Segurtasuna eta Osasuna) arauen helburuekin eta eskakizunekin. Laborategiak arau horien ziurtagiriak dauzka.
Ikuskapen arloari dagokionez, GJHekiko lerrokatzea bigarren helburuari dagokio: goseari amaiera ematea, elikagaien segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza iraunkorra sustatzea. e eta hazkunde ekonomikoa eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuak. Azken finean, herritarrei iristen zaion elikaduraren kalitatea bermatzea da helburu nagusia.

**Kuantifikazioa:** 248.550,90 ( % 8,57 )

## Programari lotutako GJH zerrenda

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| | 2-Goserik ez<br><br>Gosea amaitzea, elikagai-segurtasun eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea. | **248.550,90** | |
| **Helburua** | 2.4 - 2030. urterako, elikagaien ekoizpen-sistemen jasangarritasuna ziurtatzea eta produktibitatea eta ekoizpena areagotzen duten, ekosistemei eusten laguntzen duten, klima-aldaketara, muturreko fenomeno meteorologikoetara, lehorte, uholde eta beste hondamendi batzuetara egokitzeko gaitasuna indartzen duten eta lurraren eta lurzoruaren kalitatea pixkanaka hobetzen duten nekazaritza-praktika indartsuak aplikatzea | 248.550,90 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Prestakuntza-zentruekin elkarlanean aritzea ikasleak trebatzeko | 248.550,90 | |
| **Guztira** | | **248.550,90** | |

## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

| Gastuen kapituluak / Capítulos gastos | 2024 | 2025 | Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2026 | 2027 | 2028 | 2029 eta hurrengoak/ 2029 y siguientes | Guztira / Total |
| 1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL | 1.193.245,00 | 1.911.930,00 | | | | | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 817.458,00 | 956.017,00 | | | | | |
| 3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES | | | | | | | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **2.010.703,00** | **2.867.947,00** | | | | | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES | 31.436,00 | 31.436,00 | | | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | **31.436,00** | **31.436,00** | | | | | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **2.042.139,00** | **2.899.383,00** | | | | | |

| Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos | Ordainketa kredituak / Créditos de pago | | Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros | | Guztira / Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo |
| 1. LANGILERIA GASTUAK<br>GASTOS DE PERSONAL | | 1.911.930,02 | | | | 1.911.930,02 |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK<br>GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | | 956.017,00 | | | | 956.017,00 |
| 3. FINANTZA GASTUAK<br>GASTOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | | | | | | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA<br>FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes** | | **2.867.947,02** | | | | **2.867.947,02** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK<br>INVERSIONES REALES | | 31.436,00 | | | | 31.436,00 |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital** | | **31.436,00** | | | | **31.436,00** |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira<br>Total operaciones financieras** | | | | | | |
| **Guztira / Total** | | **2.899.383,02** | | | | **2.899.383,02** |

| Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos | 2024 | 2025 | Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto |
|---|---|---|---|
| 1. ZUZENEKO ZERGAK<br>IMPUESTOS DIRECTOS | | | |
| 2. ZEHARKAKO ZERGAK<br>IMPUESTOS INDIRECTOS | | | |
| 3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK<br>TASAS Y OTROS INGRESOS | 91.000,00 | 91.000,00 | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | | | |
| 5. ONDARE SARRERAK<br>INGRESOS PATRIMONIALES | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes** | **91.000,00** | **91.000,00** | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA<br>ENAJENACION DE INVERSIONES REALES | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital** | | | |
| 8. AKTIKO FINANTZARIOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira<br>Total operaciones financieras** | | | |
| **Guztira / Total** | **91.000,00** | **91.000,00** | |